

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak behin behineko irakasleak egonkortzea planteatu du

Neurria foru dekretu bidez arautuko da, mahaian negoziatu ondoren

Astelehena, 2018.eko abenduak 17

Hezkuntza Departamentuak aldi baterako irakasleen kontratuak egonkortzeko aukera mahaigaineratu du gaur sindikatuetakoa ordezkariekin izandako bileran. Era horretan, irakasleen kontrataziorako kudeaketa tradizionalarekin amaituko litzateke.

Ekimenaren helburua ikastetxeetako lan-taldeak egonkortzea da eta horretarako kontratuak abuztuaren 31n ez etetea litzateke modua. Ondorioz, irakasleek ez lukete jarduera-plaza urtero aukeratu behar izango, gaur egun bezala, baizik eta plaza hori bete bitartean bertan izateko aukera izango lukete. Funtzionario batek, oposizio bitartez ala leku-aldatze lehiaketa bidez, plaza hartu arte edo beharizan hori eragiten duen arrazoia desagertu arte hartuko luke plaza aldi bateko irakasleak.

Neurria, beti ere, foru dekretu bidez arautuko da, mahai sektorialean negoziatu ondotik. Hala ere, sindikatuek begi onez hartu dute ekimena. Izan ere, abuztuan gehiago sindikalak sinatu zuen Hezkuntza Publikoaren Kalitatea hobetzeko hitzarmenak aurreikusten du lan-taldeak egonkortzeko neurri zehatzak hartzea, hezkuntza publikoaren kalitatea hobetzen joateko. Era berean, ikastetxeen funtzionamendu eta antolaketa ere hobetzen lagunduko luke neurriak, baita ikasleei eta familiei begira ere.

Neurria 3.500 irakasleri baino gehiagori eragingo lioke; gaur egun foru erkidegoko ikastetxe publikoetan ari diren behin behineko irakasleei, alegia.

Hitzarmenaren betetze-maila

Mahai sektorialaren aurretik, hitzarmenaren jarraipen batzordea eratu dute ituna bera sinatu zuten sei sindikatuetakoa kideek eta departamentuko ordezkariak. Ondoren, dagoeneko indarrean jarri diren neurriak eta aurrerantzean emango diren urratsak birpasatu dira. Oro har, departamentuak oso positibotzat jo du hitzarmenaren betetze-maila.